



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

203. INFORMAZIO BULETINA

2024ko abendua



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea

ALBISTEAK

Berreskuratze eta Eraldaketa Mekanisмотik datozen funtsekin finantzaturako proiektuen gobernantzarako foru dekretua onartu da

Diputatuen Kontseiluak 2024ko azaroaren 26ko bileran onartu zen

*Azaroaren 28ko GAO*n, azaroaren 26ko 54/2024 Foru Dekretua argitaratu da, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzen duena.

Dekretua Gipuzkoako Foru Aldundian eta foru sektore publikokoak diren gainerako erakundeetan aplikagarria da, eta bere helburua da gobernantza egitura arin bat izatea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) funtsekin finantzaturako proiektuen kudeaketara, inplementaziora eta eskakizunetara hobeto egokitzeke.

Bertan, proiektuak kudeatzen dituzten departamentuen eta foru sektore publikoko entitateen, Gobernantza Departamentuaren eta Ogasun Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiaren eta Zerga eta Finantza Zuzendaritza Nagusiaren arteko eginkizunen banaketa egiten da.



2024ko abendua

Aldundiak funtsak jasoko ditu Oñatiko Unibertsitatea birgaitzeko eta turismo-bulego berria egokitzeko

Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren proiektua Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago

Europatik jasoko den laguntza 2.996.285 eurokoa da, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) 14. osagaiaren 4. inbertsioaren barruan dago. Inbertsio-lerro honetan lortu nahi den helburua da erabilera turistikoa duten titulartasun publikoko kultura-intereseko ondasunen birgaitzea finantzatzea.

Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa Departamentuak planteatutako esku-hartzearen helburua da Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatearen birgaitze-premiei erantzutea eta Turismo Bulego berria egokitzeko, Oñatiko Udalak kudea dezan, turismo-helmugen lehiakortasuna hobetzea sustatzeko eta kultura-turismoa sustatzeko, tokiko erakundeek kultura-intereseko ondasun deklaraturako ondare historikoko ondasun higiezinetan sustatutako proiektuak babestuz, mantenduz eta birgaituz.

Jarduera garrantzitsuenak fatxadaren zaharberitze zientifikoan, irisgarritasunean eta jasangarritasun energetikoan, turismo-bulegorako espazioen egokitzapenean eta eraikineko beste erabilera batzuetan oinarritzen dira.

Oñatiko Unibertsitatea Euskal Herriko Errenazimentu garaiko artearen aztarnarik adierazgarrienetarikoa da. Ez arkitekturarengatik bakarrik, baita Errenazimentu garaiko izaeraren erakunderik nagusienetarikoa izateagatik ere. Fundatzailea, Rodrigo Mercado de Zuazola, Oñatin jaio zen XV. mendearen bukaeran. Erlijio eta politika arloetan ospetsu izan zen. Ávilan eta Mallorcan gotzain funtzioak bete zituen eta Granadan Chancillería-ko presidente ere izan zen. Zuazola bera izan zen Unibertsitatearen fundatzaile, 1548. urtean. Bertan, hiru mendeetan zehar, Zuzenbide, Medikuntza, Filosofia, Teologia eta Letrak ikasketak irakatsi ziren.

Gaur egun, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea eta Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutua daude bertan kokaturik.

Informazio gehiago: [Emakida-ebazpena](#) (gaztelaniaz)

[Sancti Spiritus Unibertsitatea](#)

2024ko abendua

Hondarribiko Jaitzubiako padurak (Beko-Errota ingurua) partzialki berreskuratzeko proiektuko obrak egiteko lizitazioa egin da

Lurralde Oreka Berdea Departamentuaren proiektua Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago

Kontratuaren xedea da "Hondarribiko Jaitzubiako padurak partzialki berreskuratzeko proiektua (Beko-Errota ingurua)" izeneko proiektuan aurreikusitako obrak gauzatzea.

Proiektuaren xedea da Jaitzubiako paduretako 21.362m² berreskuratzea. Hezegunea berreskuratzeko ingurua oso laua da, eta hainbat erabilera eta eraikuntza ditu barnean.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 216.539,59 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 7an amaituko da.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez. Zehazki, plan horren 4. osagaiaren barruan (2. inbertsioa), "Lehorreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzea".

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#)



2024ko abendua

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko deialdia, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextGenerationEU). Eskabideak aurkezteko epea aurrekontua agortutakoan amaituko da, eta, nolanahi ere, 2025eko urriaren 31n.

Hirugarren dirulaguntza deialdia (2024), uraren hiri zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen norgehiagokarako (PERTE Uraren Zikloaren Digitalizazioa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 5ean amaituko da.



2024ko abendua

BESTE DEIALDIAK

Creative Europe. NEWS, Prentsa Askatasunerako Erantzun Azkarreko Mekanismoa.

- [CREA-CROSS-2025-MFP](#). Sektore arteko atala (cross-sector) eta MFP (prentsa-askatasuna eta aniztasunazkoa). Hurrengo epemuga, 2025.01.15

Creative Europe. LIVEMX-MME, MEDIA 360, SLATE Development, TV&Online Content. Zuzeneko musikarako laguntza. Hedabideen enpresa-sustapenerako nodoak sortzekoa. ikus-entzunezko produktuak erakusteko loteetarakoa. Telebistako eta Interneteko edukietarakoa.

- [CREA-CULT-2022-MME](#). LIVE MX, Musika Zuzenean Esportatzea. MME. "Musikak Europa mugitzen du". Creative programaren Kultura atala.
- [CREA-MEDIA-2025-MEDIA360](#). MEDIA 360 ekintzaren helburua da ikus-entzunezko nodo handiak garatzea, Europa mailan funtsezkoak diren aukerei eta erronkei erantzungo dieten jarduera-multzo estrategiko bat proposatzeko gai direnak. Guneek beren nortasun eta gaitasun paregabeak eta eskala-ekonomiak aprobeztatzeko dituzten ikuspegi koherente bat sustatzeko, MEDIA 360k balio-kate osoan eragina izango duen ikuspegi eta helburu partekatuak ezarriko dituzten jarduera-sorta bat babesten du. Creative programako bitartekoen atala.
- [CREA-MEDIA-2025-DEVSLATE](#). "Slate development" erako edo ikus-entzunezko hainbat sorkuntza erakusteko multzoak garatzeko laguntza, pertsona eta enpresa sortzaileak aurkezteko eta hedatzeko tresna gisa. Creative programako bitartekoen atala.
- [CREA-MEDIA-2025-TVONLINE](#). Telebistarako eta Interneterako edukiak sortzeko laguntzak. Creative programako bitartekoen atala.

Digital Europe. DIGITWIN4CIUE, Azpiegitura eta hirietako simulagailuetan (biki digitalak) masterra egiteko bekak

- [DIGITAL-2021-SKILLS-01-SPECIALISED](#). Trebetasun estrategikoen arloetan espezializatutako hezkuntza-programak (skills).

Europako Parlamentua. Komunikabide-ekintzetarako dirulaguntzak.

- [EP-COMM-SUBV-2025-MEDIA](#). 2025ean komunikazioaren arloko ekintza mediatikoetarako dirulaguntzen deialdia. Hurrengo epemuga, 2025.01.15

Erasmus Plus. EHEA , NARIC. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurako eta Onarpen Akademikoari buruzko Informazio Zentro Nazionalerako laguntzak



2024ko abendua

- [ERASMUS-EDU-2024-EHEA](#). Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua.
- [ERASMUS-EDU-2024-NARIC](#). Onarpen Akademikoari buruzko Informazio Zentro Nazionalak.

EuropeAid, garapenerako laguntza. RELEX-EEAS, EBko Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza eta Zerbitzua. Bosniarako eta Herzegovinarako eta Serbiarako mugaz gaindiko programa, 2021-2027rako, 2022-2024 esleipenean.

- [EuropeAid/183157/IH/ACT/Multi](#).

I3. Eskualdeen arteko berrikuntzarako inbertsio-tresna. Atal berdeko proiekturako laguntza (ur-hazkuntza jasagarria), eta laguntzak eskualdearteko proiektuetarako, generikoetarako (INV1 inbertsio-mota) eta berrikuntzan aurrerapen txikiagoa duten eskualdeetarako (INV2a).

- [I3-2021-INV1-GREEN](#). Baltic MUPPETS. Berrikuntza-proiektua Baltikoko itsaski-hazkuntzan. Hurrengo epemuga, 2025.01.14
- [I3-2024-INV1](#). 1. lerroa: eskualdeen arteko berrikuntzarako inbertsioak.
- [I3-2024-INV2a](#). Eskualdeen arteko berrikuntzarako inbertsioak, 2. kapitulua, berrikuntzan aurrerapen txikiagoa duten eskualdeak inplikatur.

IMREG-2024-INFOME. EBren kohesio-politikarako informazio-neurrien programa.

- [IMREG-2024-INFOME](#).

LIFE – EUCF. EBko LIFE ingurumen- eta klima-programaren Europako Hiria (EUCF) baliabidea, energia garbirako trantsizioako CET atalean.

- [LIFE-2021-CET-EUCF](#). Hautagaitzen zazpigarren deialdia.

RESIST, GEMSTONE, SILEO. Automobilgintzako, fabrikazio ekologikoko eta altzari eta argiztapeneko klusterrak. Nazioarteko bidaietarako laguntzak, sareak eta marketina, ikus-entzunezko prestakuntza eta sustapena. ETEen Merkatu Bakarreko (SMP) eta Lehiakortasuneko Programak (COSME).

SMP-COSME-2021-CLUSTER-01. "Europa berreskuratzeko euroklusterrak".

- [RESIST International travel, Networking & Marketing FSTP](#). Automozioa. Nazioarteko bidaietarako, sareak sortzeko eta merkaturatzeko edo marketinerako laguntza, "kaskadako" finantzaketarekin edo FSTPrekin (hirugarren eragileentzako laguntza finantzarioa), proiektuetan parte hartzen duten bezero nagusien kateetan hornitzaile txikien finantzaketarako sarbidea sustatzeko diseinatua. RESIST



2024ko abendua

klusterrak "Europako automobil-industriako prozesu eta ekoizpen iraunkorren bidezko erRESilientzia" helburua dauka.

- [GEMSTONE Training](#). Fabrikazio ekologikoko klusterrean prestakuntzarako finantza-laguntza.
- [SILEO Best Company Storytelling Video Contest](#). Altzarien eta argiztapenaren klusterra. Kontaketa korporatiboko bideo onenaren lehiaketa.

SEE. Gizarte Ekonomiako ETEak. Beste enpresa batzuekin balio-kate zirkularrak sortzeko eta edukierarako laguntzak. ETEen Merkatu Bakarreko (SMP) eta Lehiakortasuneko Programak (COSME).

- [SMP-COSME-2024-SEE](#).
 - 01. Gizarte-ekonomiako ETEen antolaketa- eta enpresa-gaitasuna indartzea
 - 02. Enpresa tradizionalen eta gizarte-ekonomiako ETEen arteko aliantzak balio-kate zirkularrentzat (ekonomia zirkularrekoak, hondakinak gutxitzeko planifikatuak)

SMECC, EBko ETEentzako zentroa Txinan. ETEen merkatu bakarreko eta lehiakortasuneko programen (COSME) esparruko laguntza.

- [SMP-COSME-2024-SMECC-01](#). Hurrengo epemuga, 2025.01.15

ERC. Europako Ikerketa Kontseilua. Sendotzeko bekak. Berrikuntzako Horizon esparru-programa.

- [ERC-2025-COG](#). Consolidator Grants. Hurrengo epemuga, 2025.01.14

MSCA. Arriskuan dauden ikertzaileentzako laguntza, MSCAkoak, Marie Skłodowska Curie ekintzak, Horizon berrikuntzako esparru-programakoak.

- [HORIZON-MSCA-2024-RR-01-01](#). Researchers at Risk 2024 programak kanpoko arriskuengatik mehatxatutako edo errefuxiatutako ikertzaileei babesa ematen die. Hurrengo epemuga, 2025.01.14

ERA - ScienceUs. Herritarren zientzia Horizon berrikuntzako esparru-programaren klima egokitzeko misiorako, ERA Europako Ikerketa Arloan, WIDERA atala, garapen txikiagoko eskualdeetara zabaltzekoa.

- [HORIZON-WIDERA-2023-ERA-01-08](#). ScienceUs-en herritarren zientziarako deialdia: "Klima-aldaketara egokitzea" EBren misiorako garrantzitsuak diren aribideko herritarren zientzia-proiektuak zabaltzea eta elkarri lotzea. "Herritarren zientziari buruzko Europa mailako kanpainetarako oinarriak ezarri".

2024ko abendua

STAGE. ETEak berrikuntza jasagarriko baliabideen ekosistema batean sartzeko plataforma digitala. Horizon berrikuntzako esparru-programaren 4. klusterra.

- [*HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29*](#). STAGE, plataforma edo ekosistema digitalaren 4. deialdia, iraunkortasunera bideratutako berrikuntzarako baliabide eta finantzaketa-iturrien sare batean sartzeko. Europako erresilientzia-erronketarako atala, Horizon esparruko 4. klusterrarena (CL4, digitala, industrial eta espaziala). "Berritu eraldatzeko" lerroko koordinazio- eta laguntza-ekintzak (CSA), ETEen trantsizio iraunkorrerako.

XR2LEARN , SPIRIT. Errealitate hedatua hezkuntzarako eta telepresentzia duten zerbitzu teknikoetarako. Horizon berrikuntzako esparru-programaren 4. klusterrean.

Digitalizazio, industria eta espazioko 4. klusterra. Teknologia humanizatzaileen "Human" atala.

- [*HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-25*](#). "Elkarlaneko telepresentzia hedatuari" buruzko ekintza berritzaileetarako SPIRITen bigarren deialdi irekia, hala nola urrutiko zerbitzu teknikoa emateko errealitate hedatuaren erabilera. Hurrengo epemuga, 2024.12.19
- [*HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-19*](#). XR2LEARNen bigarren deialdi irekia learning edo ikaskuntza-ekintza berritzaileetarako (IA), XR edo Errealitate Hedatuaren bidez, "erlazionatu eta elkarrekin" ikuspegiarekin.

AI REDGIO 5.0. Eskualdeen eta digitalizazio-zentroen arteko aliantza, robotikan eta jasagarritasunean aurreratutako manufaktura-enpresa txiki eta ertainetan adimen artifiziala garatzeko. I4MS2 ekimena, Made In Europe lankidetzak, trantsizio digital eta ekologiko bikoitzeko atala, Horizon berrikuntzako esparru-programako 4. klusterra.

- [*HORIZON-CL4-2022-TWIN-TRANSITION-01-06*](#). Deialdi irekia esperimentu berritzaileentzat. AI REDGIO 5.0 proiektuaren helburua da abangoardiako Europako eskualdeen (REGIO) eta berrikuntza digitaleko Europako nodo edo huben (EDIH) arteko aliantza berritzea eta zabaltzea, H2020 I4MS AI REGIOren emaitzak kontuan hartuta (Horizon 2020-koa, Horizon Europaren aurrekoa) eta AI-at-the-Edge (punta-puntako adimen artifiziala) Enpresa Txiki eta Ertainetako Fabrikazioko 5.0 Industriadarako eraldaketa digital lehiakorra inplementatuta. 5.0 industria erresilientzia eta iraunkortasun handiagoko helburuak dituzten pertsonekin lan egiten duten robot eta makina adimendunena da. Bigarren fasea (I4MS2, "Berrikuntza ETE fabrikatzaileentzat, 2. fasea") IKTak garatzeko I4MS ekimenari dagokio (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, ETEetako fabrikazioaren jasagarritasunerako), "Made in Europe" lankidetzaren barne, "Europar ekoiztua", Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) Twin Transition (trantsizio ekologiko eta digital bikoitzerako) atalaren barruan.



2024ko abendua

FARMTOPIA, Digitalizazioa nekazaritza ez-estentsiboan eta UP-RISE, EBren eta Afrikako Batasunaren lankidetzan, elikagaien segurtasunazkoan, hartzidurazko proiektuetarako laguntza. Farm2Fork Programa: Baserritik Mahaira. Horizon berrikuntzako esparru-programaren 6. Klusterra

Horizoneko 6. klusterra, elikadurari, bioekonomiari, baliabide naturalei eta nekazaritzari buruzkoa.

- [*HORIZON-CL6-2022-FARM2FORK-02-04-two-stage*](#). Ustiategi txiki eta ertainetan eta nekazaritza-egituretan teknologia digitalak erabiltzeko irtenbide adimendunak. Bi faseko deialdia (two-stage).
- [*HORIZON-CL6-2023-FARM2FORK-01-20*](#). Deialdi irekia elikagai hartzituen ekoizleentzat. UP-RISE, elikagaien segurtasunari buruzko EBren eta Afrikako Batasunaren lankidetzak.

OPEN AGRI. Kode irekiko aplikazio informatikoak nekazaritzan erabiltzea, erabiltzailearengandik hurbil edo urrun datuak prozesatuta (Edge edo Cloud). Horizon berrikuntzako esparru-programa

- [*HORIZON-CL6-2023-GOVERNANCE-01-13*](#). Kode irekiko soluzioak erabiltzaile-muturreko Edge aplikazioetarako (bertako gailuetan datuak prozesatuta), Cloud edo hodeiko aplikazioetarako (erabiltzailearengandik urrun dauden zentroetan datuak prozesatuta) eta Edge-Cloud eredu mistoetarako, nekazaritzan ekoizpen- eta administrazio-gaitasunak indartzeko. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide Naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburuaren, ingurumen-behaketaren eta Itun Berdea babesteko irtenbide digitalen atala.

EIC, UASEEDS, UkrainianTech. Europako Ikerketa Kontseilua. Ukrainako I+G teknologikoko zerbitzu etarako laguntza. Horizon berrikuntzako esparru-programa

- [*UASEEDS. Ausardia-haziak \(Seeds of Bravery\)*](#). Ukrainako teknologia-enpresa berrientzako negozio- eta berrikuntza-zerbitzu etarako deialdi irekia. Startupen elkarteen sare paneuroparra, Ukrainako erakunde berritzaile teknologikoak Europako ekosistemetan integratzen laguntzeko eta Ukrainako operazioak hobetzeko.

EIT – HEI . Goi-mailako Hezkuntzako Erakunde (HEI) eta Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutuaren (EIT) arteko lankidetzak 2023tik 2025era

- [*HORIZON-EIT-2023-2025-HEI*](#) . Hurrengo epemuga, 2024 .12.12

FIDAL, IMAGINE-B5G, 6G-PATH, 6G-BRICKS. Horizon berrikuntzako esparru-programaren 5G eta 6G telekomunikazio aurreratuen erronkako proiektuak, berrikuntzak eta formulak konbinatuz, hala nola erabilera komuneko plataformak edo benetako balio industrialeko kateetazko frogakuntzak



2024ko abendua

JU-SNS ("sistema eta sare adimendunetarako Europako erronka bateratua") 5G eta 6G sare mugikorren teknologia berriak bizkortzeko EBk bultzatutako partzuergoa da. Zenbait lan-lerro edo korronteetan datza. C (stream C) jarduera-lerroaren edo korrontearen bidez, azpiegituren esperientazioa garatzen da, stream A (5G-ezkoa dena), B korrontea 6Gri buruzkoa eta D korrontea ikuspegi bertikaleko proiektuetazkoa.

- [HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-C-01-01. 6G-BRICKS](#) 6G motako telekomunikazioak esperimintatzeko instalazio-proiektu bat da, seinaleak hedatzeko teknologia berriak lantzen dituen eta adimen artifizialeko kontzeptuak integratzen dituen, "adreilu" edo brick izeneko osagai edo aplikazio batzuk sortuz, etorkizuneko telekomunikazio-inguruneetan elkarreragingarriak izateko moduan moldatuta.
- [HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-D-01-01. IMAGINE-B5G](#) izena 5G telekomunikazio-teknologiatik haratago etorkizuna irudikatzeaz datorrelarik, D korrontearen proiektu bat da, balio-kate industrialekiko perspektiba bertikala (integrala edo zeharkakoa) duena, eskala handiko esperimintuen plataforma bat edo proiektu pilotuak (LST & Ps) garatzen dituen "bertikal" edo kate horiekin batera.
- [HORIZON-JU-SNS-2023-STREAM-D-01-01. 6G-PATH](#) "6G teknologiarako bidea" aipatzen duenak, IMAGINE-B5Gren ezaugarriak ditu, eta adimen artifizialeko beste teknologia batzuk txertatzen ditu, lehorrekoak ez diren sareak edo lurra-satelite hibridoak, terahertzio edo holografien komunikazioak, espektroraginkortasuna edo energiaren optimizazioa.
- [HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-D-01-01. FIDAL](#) IMAGINE-B5G plataformari lotutako garapenak hirugarrenen ingurune errealean (edo "erabilera eboluzionatuko kasuak") proben bidez garatzen ditu, bai eta adimen artifiziala.

CEF. Europa konektatzeko mekanismoa. Energiaren atala. Mugaz gaindiko berriztagarriak (CBRENEW). Proiektuetarako azterlanak

- [CEF-E-2025-CBRENEW-](#) Hurrengo epemuga, 2025.01.16.

-STUDIES. Energia berriztagarriari buruzko mugaz gaindiko azterlanen proiektuak.

-WORKS. Energia berriztagarrietarako mugaz gaindiko obra-proiektuak.

CERV. Herritartasun, Berdintasun, Eskubide eta Balioen Programa. EBko balioekin lerrokatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntza orokorrak eta espezifikoak.

- [CERV-2025-OG-FPA](#). Lankidetzat markoetarako laguntza orokorrak (FPA), ohiko funtzionamendurako laguntzak (OG) erakunde onuradunentzat. Hiru urteko elkartzeko esparru-akordioetarako proposamenen deialdia, Europako sareei, EB mailan aktiboak diren gizarte zibileko erakundeei eta Europako talde adituei (think tanks) laguntzeko Batasunaren balioen eremuetan. Hurrengo epemuga, 2025.01.28.



2024ko abendua

- [*CERV-2025-OG-SGA*](#). Berriazko laguntza-akordioak (SGA). Batasuneko balioen esparruan aktibo dauden esparru-bazkideentzako dirulaguntza operatiboak. Hurrengo epemuga, 2025.02.05.

Creative Europe. Baliabide digitalen azpiprograma. Tresna eta negozio-eredu berritzaileak garatzeko laguntza.

- [*CREA-MEDIA-2025-INNOVBUSMOD*](#). Hurrengo epemuga, 2025.01.16.

EUAA. Asilorako EBko Agentzia. Nazioarteko babesari buruzko jurisprudentzia ikertzea eta aztertzea, eta legeko kasuak datu-basean erregistratzea.

- [*EUBA-EUAA-2025-ASYLUMCASELAW*](#). EUBA. Europar Batasuneko organoak eta agentziak. Hurrengo epemuga, 2025.01.16.

INDUSAC. Ikertzaile eta ikasleentzako deialdia. Industriaren eta unibertsitatearen arteko lankidetzaproiektua. Berrikuntzako Horizon esparrua. 4. klusterra. Digitalizazioa, industria eta espazioa. Teknologia humanizatzaileen atala.

- [*HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-20*](#). "Proba pilotuan jartzea industriaren eta akademiaren arteko ezagutza-truke berri bat, enpresen beharretan oinarritua". Koordinazio- eta laguntza-ekintzak (CSA). Hurrengo epemuga, 2025.01.31.

Trustchain. Interneten konfiantza-kateko teknologia ekologikoak, eskalagarriak eta jasangarriak, DLT motakoak (erregistro banatukoak). Berrikuntzako Marco Horizon. 4. klusterra. Digitalizazioa, industria eta espazioa. Teknologia humanizatzaileen atala.

- [*HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-03*](#). Interneteko arkitekturari eta teknologia deszentralizatuari buruzko ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak laguntzeko bosgarren deialdi irekia (OC5). Hurrengo epemuga, 2025.01.15.

IN TRANSIT. Ehungintzako, sektore aeroespazialeko eta eraikuntzako sektoreen arteko partzuergoa, trantsizio ekologikorako eta digitalerako. Bigarren deialdia (garapeneko). Horizon Europe berrikuntza esparrua.

- [*HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-26*](#). DEVELOP deialdia (garapeneko). "Berritu eraldatzeko". Koordinazio- eta babes-ekintzetarako laguntza (CSA), jasangarritasunerako trantsiziorako eta ehungintzako, aeroespazioko eta eraikuntzako ETEen erresilientzia indartzeko, sektore berdeagoetara eta digitalagoetara igartzeko, gizarte- eta enpresa-berrikuntzarekin. Horizon Europeko 4. klusterra. Digitalizazioa, industria eta espazioa. Erresilientziaren atala: Europako hainbat erronka estrategiko biltzen ditu. Hurrengo epemuga, 2025.01.16.



2024ko abendua

ARISE. Middleware (gailuen konektagarritasunerako programa informatikoak), kode irekikoa eta denbora errealean, industrian gizaki eta robot arteko elkarrengaiterako. Horizon Europe berrikuntza esparrua.

- [*HORIZON-CL4-2023-DIGITAL-EMERGING-01-02*](#). Lidergo industrial adimen artifizialean, datuetan eta robotikan: gizakien eta roboten arteko interakzio aurreratua (AI Data and Robotics Partnership). Horizon markoko 4. klusterra. Digitalizazioa, industria eta espazioa. Teknologia digital berrien atala. Hurrengo epemuga, 2025.01.16.

Future Foods. Elikadura-sistemen berrikuntza. Elikatze-estrategiaren atala: Baserritik Mahaira. Horizon Europe berrikuntza esparrua.

- [*HORIZON-CL6-2023-FARM2FORK-01-9*](#). "Elikadura-sistemak eraldatzea: haien arteko elkarrekintzak birformulatzea, berrikuntza sustatzea eta elikagai jasagarriak aukeratzea ". Horizoneko 6. klusterra, elikadurari, bioekonomiari, baliabide naturalei eta nekazaritzari eskainia. Pertsonentzat, planetarentzat eta klimarentzat iraunkorrak diren elikadura-sistemei buruzko Europako elkarte. Hurrengo epemuga, 2025.01.15.

JU-SNS. 6G-XR. Errealitate hedatua (XR) 6G teknologia mugikorrarekin. Berrikuntzen erreplikazio bertikalaren trebatzaileentzako laguntza (hornitzaileen kateetan zehar). Europako JU-SNS baterako erronkaren azpiegitura esperimentalerako atala, sistema eta sare adimendunetarako. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- [*HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-C-01-01*](#). 5G eta 6G sare mugikorraren teknologia berriak bizkortzeko EBk bultzatutako partzuergoa. Errealitate hedatuko hirugarren deialdi irekia (XR) 6G: 6G-XR plataforma eta sare-gaitzaileak. JU-SNSen barruan dago, edo azpiegiturei buruzko esperimentazioei eskainitako C (stream C) korrontean, A (5Gri eskainia), B (6Gri eskainia) eta D (perspektiba bertikaleko proiektuei eskainia (balio industrial sektorialeko kate oso bati zuzendua) korronteen osagarri. Hurrengo epemuga, 2025.01.11.

SpongeWorks, BioProtect. Lurzoruetan ura xurgatzea eta biodibertsitatea. Klimarako, ozeanoetarako eta lurzoruetarako misioen proiektuak Horizon Europe berrikuntzaren esparruan. Elkartutako eskualdeetarako deialdiak.

- [*HORIZON-MISS-2023-OCEAN-01-03*](#). Bio Protect. Atlantikoko eta Artikoko itsas arroen "itsasargi ekimena": "nola aurre egin klima aldaketaren mehatxuei eta itsasoko biodibertsitatea babesteko giza jardueri".
- [*HORIZON-MISS-2023-CLIMA-OCEAN-SOIL-01-01*](#). Klima Egokitze Misioa, Ozeanoak eta Urak Misioa eta Lurzoruetarako Itunaren Misioa. Ikuspegi integratu baten baterako erakustaldia, paisaiak eskualde-mailan ura atxikitze duen gaitasuna handitzeko. Hurrengo epemuga, 2025.01.31.



2024ko abendua

Bidezko Trantsizioko Mekanismoa (JTM). Sektore Publikorako Mailegu Zerbitzua (PSLF). Mailegu-eskemak eta banakako proiektuetarako laguntzak.

- [JTM-2022-2025-PSLF](#). Hurrengo epemuga, 2025.01.16.

-LOAN-SCHEMES. Mailegu-eskemak.

-STANDALONE-PROJECTS. Banakako proiektuetarako laguntzak

SUSRUR. Landa-eremuetako edo urruneko turismo-enpresa txiki eta ertainentzako laguntza. Merkatu Bakarreko (SMP) eta Enpresa Txiki eta Ertainen Lehiakortasuneko programak (COSME).

- [SMP-COSME-2021-TOURSME-01](#). "COLLABORATE" hirugarren deialdi irekia (kolaborazioetarako). Hurrengo epemuga, 2025.01.15.

[“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea](#)